



### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Atarian**  
Egilea / Autora: **Maixa Zugasti**  
Saila / Colección: Narratiba, 140  
ISBN / EAN: 978-84-9109-813-3  
Salneurria / Precio: 21 €  
Orri kopurua / N° páginas: 336  
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 15 x 22 cm  
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para Adultos

### Lana / La obra

*Nire gelan, inoiz ez da argirik pizten sabaitik zintzilik dagoen kablearen amaieran.  
Hala ere, hatzek oraindik ez dute galdu ate ondoko giltza mugitzeko ohiturarik.  
Aitaren etxean bezalaxe, sartu eta irteten naizen bakoitzean.  
Bi aste daramatzat keinu hori behin eta berriz egiten, baina, hemen, denak ilunpean  
jarraitzen du:  
aspaldi sartu zen gaua leihorik gabeko nire gelan, eta hantxe geratu da, nire  
moduan, geldi-geldirik, adi.*

Bizitzaren amaieran, heriotza ate-joka sentitzean, izan garena azaleratuko da. Oinordekotza-ara-  
zoak, boterea, dirua...; izarpean, atarian egingo dute topo Juanek eta Leandrok, biek ala biek mai-  
tasunaren abaroa aurkitu nahian. Leandro, Hernaniko baserri bateko azken jabea, Maite alabak  
Sandiusterri egoitzan sartuko du gogoz kontra, burua nahasi zaiolako aitzakian. Haren benetako  
kezka, ordea, baserriaren jabetza da. Egoitzaren barruan, Juanek babestuko du, asmo iluneko gi-  
zonak. Kate-begien moduan uztartzen diren istorio hauetan, Paula agertuko da bi gizonen alboan.  
Oin bat haurtzaroan, bestea helduen munduan, mugarría igarotzeko atakan dago neskatoa, lehen  
maitasunarekin ametsetan. Hiru pertsonaia, hiru ahots, elkarren atarian; maitasuna, gauari langa  
jartzeko bide bakarra.

### Egilea / Autora:

**Maixa Zugasti** (Tolosa, 1973). Deustuko Unibertsitatean Hispaniar Filologia ikasketak egin ondoren,  
irakaskuntzan aritu da hainbat urtez; gaur egun, idazle-lanean dihardu.  
Irun Hiriko Literatura saria irabazi zuen 2017an, LAA istorioarekin. Harrezkero, eleberri bat, ipuin bat,  
eta poema-bilduma bat, argitaratu ditu.: *Ahotsak eta itzalak* (Erein, 2018), *Tximeletak hondartzan* (Erein,  
2019), *Hostoan hezurdura unatua* (Balea Zuria, 2021), hurrenez hurren.

